

## Iturraman ere ideien iturburu

Pablo AZPIROZ IRIBAS\*



**2**007ko otsailaren 6a. Egunaren goibelak iragartzen zigun hura ez zela hiriarren urrezko imajinarioan geldituko. Iturramako Biblioteka Publikoa inauguratzear zegoen, bai, baina ordurako goi-politikariek eginak zituzten bertan egin beharreko argazkiak. Izan ere, liburutegiak Iturramako Civivox eraikinaren 2. solairua hartzen du kokalekua, eta agintarien agenda kontuak zirela eta, hainbat egun lehentxeago burutua zuten alimaleko ospakizuna —lurrez, airez eta urez— “Marina Vox” hiri bainuetxeak —mihiluzeek izendatu zuten gisan— merezi zuen harrera egiteko.

# 25

Beraz, kazetari batzuk, politikari gutxi, biblioteketako nagusi gutixeago eta are bibliotekari gutxiago ere elkartu ginen astearte hartako arratsaldeko hitzorduan. Ekitaldi ofizial xumea amaitu ondoren onena ailegatzekoa zen. Jendea, bakarka edo koadrilan, hasi zen sartzen. Batzuk xalo-xalo, beste batzuk orroka, baina orokorrean ikusminezko aurpegiek berdintsu zioten: *bazen garaia gure auzoan ere zerbait egiteko!; eta segituan: zeinen biblioteka ederra, handia eta argia! —bistan da agintariendako auzo preziatua dela— Zer egin behar dugu erabili ahal izateko?*

Ondorengo egunetan ere galderak denetariakoak izan ziren: *hau guztia dohainik dela?? Liburuez gain pelikulak eta musika ere eramaten ahal direla etxera?? Interneten ibiltzeko ez dela deus ordaindu behar?? Ez zaretela Civicaneokak, bada??, eta maizen aditua: eta igerilekuan sartzeko txartel honekin berarekin, ezta? - Ezetz, honek Nafarroako liburutegi publiko guztietan aritzeko BAINO EZ DUELA BALIO.*

Honela, gainerako liburutegietan zaildutako erabiltzaileekin batera, Iturramakoan propio sortu berriak koxkortzen hasi ziren, eta gutxika-gutxika, gure familia gero eta zabalagoa egiten ari

---

\* Iturramako Liburutegi Publikoa

da, bai kopuruz bai aniztasunaren aldetik ikusita —unibertsitario asko, jende edadetu asko, haurrak, emakumezkoak, gizonezkoak, erdaldunak, euskaldunak... eta Europaz haratagoko etorkin bakan batzuk ere, zeren auzoko pisuen prezioak ez dira guztion eskura—.

Bestalde, zer esan gure eginbideaz? Funts eskasarekin —baina gaurkotu xamarra— hasi gine-la eta horrek ezinegona eragiten zuela erabiltzaileengan —*oi ama, apalategiak xuri-xuri daude ta! Hau da daukazuen guztia, edo oraindik ez duzue dena paratu?*; atek zabaldu eta handik gutxira egunkarietan agertu ginela— ez gure balentriengatik, baizik eta sabaia itoginez josia genuelako eta ura nondik —nahi sartzan zitzaigulako—; orain artean nahikoa lan izan dugu-la tokiaz, funtsaz, eta horrelakoez jabetzen, eta hemendik aurrera liburutegiaren dinamizazioa eta auzoen agente sozialekiko harremanak landu asmoa dugula; Civivox-ez arduratzen den enpresaren langileekin hartu eman gazi-gozoa dugula, eta berandu baino lehen beharko litza-tekeela koordinazio eta elkarlanerako marko bat eratu; Iturrama auzoa agintarien begikoa iza-teak alderdi onak dakartzala bibliotekarako —besteak beste, lehenak izan gara Wi-Fi gunea eskaintzen Liburutegi Nagusiarekin batera—.

Bukatzeko, beste lankide batzuk hainbatetan esandakoa gure egingo dugu; izan ere, ulergai-tza da horrenbesteko dirutza gastatzea biblioteka ederrak eraikitzen, gero ahalik eta probetxu handiena ez ateratzeko —behar anitzetarako mota guztietariko funtsak erosiz, egun osoko ire-kiera bultzatuz, langileak erabiltzaileen behar berrietara egokitzen lagunduz, benetako Sistema bat sustatuz eta garatuz...—.

## 26

Gauzak honela, asmatu nahiko genuke biblioteka erreferente bihurtzen auzokoan bizitzetan, eta batez ere, kontura daitezela liburutegia beraiena dela; ez dela soilik aldian aldiko hiri-gobernuaren sokakoen beste mutur bat, edo bertan ari diren aldian aldiko profesionalena, baizik eta herritar guzti-guztiona dela, eta jakina, den-denok badugu zertan hobetzen laguntzea. Horretan saiatuko gara.

